

“Gaurkoa festa bat izatea gura dugu; urteurrena etxeokoen ospatzea da asmoa”



Iokin Elortza Sarasketa
Seiurteko kidea • 14

Birraitona abadiñarra duen Javier Zabala errioxarrak Olazarreko finala jokatuko du

Zaldibar • Oier Etxebarriagaz batera, Olazar pilota txapelketako finala jokatuko du Javier Zabalak abenduaren 31n. Oraintsu bere birraitonaren sorteria, Abadiño, bisitatzen egon dela dio Errioxako pilotari gazteak. • 18



Arnastea kezka iturri denean

Eusko Jaurlaritzak Durangaldeko airea ona dela dio, gai kimiko kutsagarrien isuriak egon direla onartu arren. Fabriketatik eta garraiotik datoz kutsagai kaltegarrienak, eta horren arriskuaz ohartarazi du Ecologistas en Acción erakundeko aire ikerketaren zuzendariak. Bestalde, eremu industrialetan minbizi arriskua handiagoa dela dio ikerketa batek. • 2-4



Elorrioko trenbide zaharra bidegorri bihurtu gura dute udaberrirako

Elorrio • Udalak datorren udaberrirako bukatzea aurrekusi dituen lanei esker, herrigunean dagoen autokarabana gunetik San Agustin auzoraino bidegorria atonduko dute. • 9

◆◆◆ Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu ◆◆◆



Barrenkalea, 28 | 946 817 918 | www.naturalkibelardenda.es

Fumbarrik gai kimiko kutsakorrak isuri dituela egiaztatu du Eusko Jaurlaritzak, baina Durangaldeko airea ona dela dio

Hatsaren harira, Smurfit enpresari espediente bat zabaldu dio Jaurlaritzak, galdara baten iragazkian arazo bat edukitzeagatik; konpontzen dabilta



Eusko Jaurlaritzako eta Durangoko Udaleko arduradun politikoez zein teknikariek egin zuten eguazteneko agerraldia, udaletxean.

DURANGALDEA • MARKEL ONAINDIA

Arnasten dugun airea, gure bizirako ezinbesteko den hori, herritar askoren kezka iturri da aspaldian, osasunerako kaltegarri izan daitekeelakoan. Hatsa, neurketen datuen zabalpena sare sozialetan... gaia ahoz aho dabil. Kezka horren aurrean, Durangoko Udalak ikerketa egiteko eskatu zion Eusko Jaurlaritzari, eta azken hiru hileetan azterketa berezi bat egin dute San Roke auzoan unitate mugikor bat ezarrita, Fumbarri fundizioaren inguruetan. Bada, Fumbarrik gai kutsakorrak isuri dituela egiaztatu du Eusko Jaurlaritzak.

Elena Moreno ingurumen sailburuordea Durangon egon zen eguaztenean, ikerketaren berri emateko. Euren "ezusterako", Fumbarrik osagai organiko aldakorrak atera direla egiaztatu ahal izan dute, Morenok prentsaurrekoan aitortu zuenez. Guztiz zehazteko, enpresako tximinian bertan ere egin dituzte probak. Gainera, beste estazioekin alderatuta, kutsadura indize altuagoa eman du. Antza denez, galdategian erabilitako produktu batek eragin du kutsadura, eta soluzioa hori ordezkatzeko izango da. Enpresaren elkarlana eskertu du Morenok, eta araudian ezarritakoa-

Fumbarri galdategian erabilitako produktu batek eragin du kutsadura, eta soluzioa ordezkatzeko izango da

Morenoren esanetan, hatsak ez du zertan loturarik eduki aire kalitate txarragaz

ren aurka egin ez omen duenez, ez du espedienterik edukiko.

Hala ere, legezko mugak ez direla gainditu esan zuen sailburuordeak. Gainera, Durangoko airea urteko %99 egunetan ona dela nabarmendu zuen. Datuen balorazioa egin zuen, baina neurketen datu zehatzik eman barik.

Smurfiteko usaina

Iurretako Smurfit enpresari, ostera, espedientea zabaldu diote, galdara baten iragazki batean akatsa eduki duelako. Enpresak berak eman zuen abisu irailaren 7an, eta Morenok azaldu zuen arazoa

onbidean doala eta enpresaren elkarlana eskertu zuen. Otsailerako konponduko dute, beste makina batek ordezkatzuta. Kasu honetan, usainekin lotutako neurriak dira; Morenoren esanetan, usain txarrak ez du zertan loturarik eduki aire kalitate txarragaz. Udan egondako hatsa ikertzen ere ibili direla kontatu zuen, baina ezin izan dutela iturria detektatu.

Oposiziotik

Prentsaurrekoa amaitzean, Julian Rios (Herriaren Eskubidea) zinegotziak berba eskatu zuen, galderak egin gura zituelako. Baina Aitziber Irigoras alkateak argitu zion prentsaurrekoa zela eta ez zitzaiola txanda tokatzen. Neurgailuetan egun batzuetan egondako datu hutsuneen inguruan galdetu gura zuen Riosek, gero prentsari esan zionez.

Aurretik, Moreno sailburuordeak hitza hartu zuenean, datu guztiak Jaurlaritzaren webgunean eskura daudela azaldu zuen, eta gertaera zehatz batetik eztabaida politiko "lotsagarria" eragin gura izatea egotzi zion oposizioari. Herriarrei "lasaitasun osoa" edukitzeko aholkua eman zien Morenok.

Datuen interpretazioa

Urteko egunen %99an airearen kalitatea ona dela nabarmendu zuen sailburuordeak. Zein neurketa sistema erabiltzen den dago gakoa. Europar Batasuneko hartuta, airea ona da Durangaldean; Munduko Osasun Erakundearena hartuta, ostera, ez, beheko taulan ikusi daitekeen lez.

Amankomunazgoak eskualdeko airea aztertuko du datorren urtean

Abadiñon eta Elorrion ere airea neurtzeko ikerketak zabalik dituzte udalak

DURANGALDEA • M.ONAINDIA

Amankomunazgoak ikerketa berri bat egingo du 2018an eskualdean, azkenengoa landu zuenetik 5 urte pasatu eta gero. Nahiz eta eztabaida Durangon zentratu, Aitor Lopez presidentek (EH Bildu) uste du eskualdeko arazo bat dela, eta diru bat bideratuko dute azterketa egin ahal izateko. Gainera, herri txikietan ere airea ikertzea lortuko da horrela.

Abadiñoko airea neurtzen dabilzala esan dute, eta Garbi fundizioa neurriak hartzeko prest dagoela

Beste ikerketa ildo batzuk ere zabalik daude Durangaldean. Abadiñon, IK4-Azterlanegaz eta Jaurlaritzagaz airea neurtzen da-

biltzala esan dute, eta Garbi galdategia neurriak hartzeko prest dagoela. Elorrion, Metal Smelting eta Betsaide enpresen inguruan ibili dira airea neurtzen. Lehen enpresari neurriak eskatu zizkion udalak, eta horri esker lau hilean airea hobetu egin dela ikusi dute. Maiatzean eta ekainean 12 egunetan airea ez zen ona izan; irailean batean soilik. Neurriak hartzen jarraituko dute.

DURANGALDEKO ESTAZIOAK

2016ko batezbesteko datuak	PM2,5 EBren muga: 20 OMEn muga: 10 (mk/m ³)	PM10 EBren muga: 40 OMEn muga: 20 (mk/m ³)	OZONO TROPOSFERIKOA OMEn muga: 25 egun
Durango	12	18	-
Zornotza	10	22	-
Urkiola	-	-	55 egun



Miguel Angel Ceballos
Ecologistas en Acción.
Aire ikerketaren egilea.
Valladolid | 1968

“OMEk aholkatutako PM2,5 partikulen mugak gainditzen ari dira Durangaldean”

Estatuko 2016ko airearen kalitatearen ikerketa gidatu zuen Ceballosek; arnasten dugun airea txarra dela dio

DURANGALDEA • MARKEL ONAINDIA
Geografoa da ofizioz Miguel Angel Ceballos, eta Ecologistas en Acción erakundeko kide moduan, aire kalitatearen inguruko sailaren bozeramailea da. Berak zuzendu du estatuan 2016an egindako ikerketa. Durangaldeko datuak ere aztertu ditu ikerketarako, eta hemen PM2,5 partikulekin dagoen arriskuaz ohartarazi du. Gainera, euskal Autonomia Erkidegoan neurketa sistemaren kalitatea eskasa izan dela salatu du txostenean; 18 neurgailutik 11k datu bilketa portzentaje baxuak eduki zituzten iaz.

Eusko Jaurlaritzak eta Durangoko Udalak diote eskualdeko airea ona dela. Baina, PM2,5 eta PM10 partikulekin OMEren mugak gainditu dira azken urteetan.

Mendi artean sartutako bailara bat da zuena, kutsaduraren dispersioa zailtzen duena. Azken urteetan muga legalak bete diren arren, Osasunerako Mundu Erakundeak aholkatutako PM2,5 partikulen mugak gainditzen ari dira bertan. Osasunerako arriskutsuenak dira. Europako Ingurumen Agentziaren arabera, 2013an 24.000 heriotza goiztiar eragin zituzten estatu espainiarrean. Trafikoaz aparte, badirudi zuen zonalde horretan aktibitate industrialak zerikusia duela,

galdategi ugari daudelako. 2007an, Eusko Jaurlaritzak Durangaldeko airea hobetzeko plan bat aurkeztu zuen, baina 10 urte pasatu dira, eta ez da egon aurrerapauso nabarmenik. Industriagaz zorrotzagoa izan behar luke Jaurlaritzak, isuriak kontrolatzeko. Udalei dagokienez, garraio kolektiboa eta bizikleta erabiltzeko politikak sustatu behar lituzkete. Lan asko dago egiteko, eta herritarrak informatu behar dira, guk ere gure bizitza ohitura egokia-goetara bideratzeko. Herritarrak informatzea oinarritzkoa da.

Osasunerako benetan hain arriskutsuak al dira PM2,5 partikulak?

Euren tamainu txikiagatik, PM2,5 partikulak biriketara ailegatu ahal dira, hortik odolera, eta beraz, gero edozein organotara. Bihotzeko arazoak larritzen dituzte, eta, gainera, minbizia eragin dezakete, batez ere trafikotik datozen isurien eraginez. Karbono organikoaren kopuru handi bat izaten dute, minbizia eragile dena. Partikula horietaz gehiago jakin ahala, gaixotasun estimazioak gero eta larriagoak dira. Duela hamarkada bat, Espainian 16.000 heriotza goiztiar zenbatu ziren; orain partikulak bajatu egin dira, baina heriotza estimazioa igo, ezagutza zientifikoa hobea dugulako. OMEk berak ere esaten du, jartzen duen 10 mikrogramoko mugak ez

“**PM2,5 partikulak biriketara ailegatu ahal dira, hortik odolera, eta gero edozein organotara**”

“**Aire osasuntsu bat lortzeko anbizio politiko falta erakutsi du Europar Batzordeak**”

duela osasuna guztiz bermatzen. **Bestalde, Urkiolan, ozono troposferikoari OMEk ipinitako muga pasatzen da. Zer da kutsagai hori?**

Ozono troposferikoa batez ere udako kutsadura bat da, eguzkiaren erradiazioagaz lotura baitu. Atmosferan sortzen da, tenperatura handiko erradiazioaren eta beste giza-kutsadura iturrien erreakzio kimikotik. Nekazaritza-eremuetan ematen da, kutsadura hiriguneetatik hara mugitzean. Urkiolako parke naturalean erkidegoko kutsadura maila altuenetakoak eman izana esplikatzeko du horrek. Agian ez du

pertsonengan zuzenean eragingo, baina bai modu garrantzitsuan boso eta espazio natural babestuetan. **Berba asko egiten da ingurumena zaintzeaz, garapen jasagarriaz... Baina zuen ikerketak dio ez dugula aire onik arnasten.**

Ez. Duela hamar urte baino hobeto gaude, baina arnastea arrisku bat izan ez dadin, OMEk aholkatzen duenetik oso urrun gaude oraindik. Pertsona guztientzat izan daiteke arriskutsu, baina, batez ere, sentisbleentzat: umeentzat, nagusientzat eta arnasketa zein bihotz arazo kronikoak dituztenentzat.

Beraz, kutsadura sailkatzeko zein irizpide erabili, hortxe dago eztabaidaren gakoa. Europar Batasunak OMEk baino indize malguagoak ezarri zituen, eta instituzioek, hementxe ere, horiek erabiltzen dituzte.

OMEren aholkuak bete ez izanaren jarrera orokorra dago erabaki horren atzean. Europar Batasuneko herritar guztientzako aire osasungarri bat lortzeko anbizio politiko falta erakutsi du Europako Batzordeak. Osasunerako eskubidea babesteko exigentzia handitu beharrean, malgutasunerako bidea hartu duela esango nuke. OMEk aholkatzen duenera 2010ean ailegatzea aurreikusi zuten 1999an, baina 2008an hori ahaztu eta bihurtu egin zen PM10 eta PM2,5

“

AEBetako ingurumen agentziako balioak EBkoak baino zorrotzagoak dira

“

Isuri kutsakorrek murriztu ahal izateko, garraio politikak garatu beharko lirateke

partikulen muga. Partikula horiek osasunerako kaltegarrienak direla egiaztatu da.

Ameriketako Estatu Batuetan, ostera, muga OMErenera hurreratzen da.

Trumpen agintaldia zelan amaituko den ez dakigun arren, AEBetako ingurumen agentziako balioak EBkoak baino zorrotzagoak dira. Kurioski, gure aurretik dabilta horretan. PM2,5 partikulen kasuan, AEBetan urteko batezbesteko muga 12 mikrogramo metro kubikokoa da, eta European 25 da. Bikoitza baino gehiago, beraz. Eta OMEren aholkua muga 10ean ipintzea da.

Instituzioetatik lasaitasun mezua dator, herritarren kexen aurrean.

Lehenik eta behin, administrazioek arazoa onartu beharko luke. Gehienek ez dute egiten; legea betetzen ez dela argi dagoenean eta European espedienteak zabalik dituztenean soilik egiten dute, isunak tartean daudenean; Madril eta Bartzelona dira adibide. Baina muga legal horiek betetzen ez diren beste hainbat eremu daude, eta ez dute errekonozitzen, isunik jaso ez dutelako. Bilbo Handian, esaterako, 2016an eta 2017an Nitrogeno Dioxidoko balio muga legala gainditu dute. Baina inor ez da interpelatua sentitzen, ez udala ezta Eusko Jaurlaritza ere, eta gaia ohar-tu barik pasatzen ari da. 800.000 pertsonatik gora bizi dira eremu horretan.

Zer egin dezakete instituzioek airearen kalitatea hobetzeko?

Isuri kutsakorrek murriztu ahal izateko, garraio politikak garatu beharko lirateke. Autoaren neurritz kanpoko erabilera gutxitu, tren sustatu, eta hirietan bizikleta eta garraio publikoa indartzea behar da. Ikatza darabilten zentral termiko guztiak ahalik eta arinen zarratzea komeni da, eta energia berriztagarriekin ordezkatu.

DURANGALDEA • MARKEL ONAINDIA

Epidemiologiako Zentro Nazionalak egindako ikerketa batek dio estatuko zenbait eremu industrialetan minbiziak jota hiltzeko arriskua %17 handiagoa dela. Ikerketarako, 2007 eta 2010. urteen arteko datuak erabili dituzte, eta horietan, Durangaldea ere kokatzen dute kaltetutako eremuen artean. Industrialdeak herritik 5 kilometro baino gutxiagoko erradioan daudenean igartzen omen da substantzia kantzerigenoen arrisku handiena. Pablo Fernandez Navarro da ikerketa egin duenetako bat, eta azaldu du Espainia osoan 9 milioi pertsona bizi direla substantzia kantzerigenoak isuri ditzaketan industrietatik 5 kilometro baino gutxiagora.

Eragina bajatzeko neurriak

Ikerlariak dio neurriak hartu beharko liritekeela arriskua murrizte aldera. "Osasun ikuspegitik, eta industriek isurtzen dituzten osagai kutsakorrak kontuan hartuta —horietako asko kantzerigenoak— euren eragina bajatzeagaz

Eremu industrialetan minbizi arriskua %17 handiagoa dela dio estatuko ikerketa batek

Epidemiologia zentroko ikerketak Durangaldea ere kokatzen du ingurune kaltetuen artean

edo ezabatzeagaz lotutako edozein neurri oinarritzkoa eta beharrezkoa da", uste du Fernandez Navarrok. "Arrisku erlatiboa txikia izan ahal

da, baina kutsaduraren eraginpean dagoen biztanleria handia bada, eta horixe da honen kasua, eragina saihesteak emandako etekinak oso

garrantzitsuak liriteke", jarraitu du epidemiologia adituak.

Industriatik hurbil dauden herrietan minbiziak jota hiltzeko



Durangaldea da industriaren eragina jasotzen duen eskualdeetako bat.

arriskua handiagoa dela ondorioztatu arren, Fernandez Navarrok esan du ezin dela kausalitate zehatz moduan ulertu. "Aurretik egindako ikerketen mugak kontuan hartuta, emaitza guztiak tentuz hartu behar dira, eta ez dira interpretatu behar kausalitatearen terminoetan". Hala ere, horrelako ikerketak "etorkizuneko lanetarako hasiera puntu lez" erabiltzea ondo legokeela uste du ikerlariak.

Enpresen pausoak

Bestalde, ikerketak industriaren eta minbiziaren arteko erlazioa aztertzea izan du helburu, baina ez gaur egungo osasun egoera. Horregatik, 2007 eta 2010. urteen arteko datuak baliozkotzat dituzte. Hori bai, Fernandez Navarrok azaldu du balitekeela isuri kutsakorraren egoera aldatu izana. Gainera, enpresetan ere pausoak eman izan direla dio. "Osasunean eta ingurumenean duen eragina gutxitzeko uneoroko esfortzua egiten du industriak, eta hori nabarmentzea ere garrantzitsua da", adierazi du.

Hurbiletik

"Arazoa hor dago, kalean pilatutako zaborra bezain begi-bistakoa ez den arren"

Arnastutako airearen kalitatearen aurrean "gardenatasuna" eskatu dute San Fausto auzoan, gogoratu hainbat elkarte, sindikatu, alderdi politiko eta eragile azaldu direla arduratuta.

Airearen kalitatea ez da behar besteko ona.

Azken hileotan nabarmen igarri da hatsa, ez auzoan bakarrik, herri osoan, eta ez dakigu zergatik den. Usain eskasa beti lotu dugu paper-fabrikagaz. Ohitu ere egin gara. Baina, denok jakin behar genuke zer arnasten dugun, eta udalak gertatzen ari dena

argitu behar luke. Airearen kalitatea neurtzean gertatu diren etenak ere, justu kutsadura gorenean egon ostean, deigarriak dira.

Arduratuta bizi duzue gaia?

Bai. Herritar guztioi arduratu beharko liguke. San Fauston arnastutako airea Abadiñon, Iurretan... ere arnasten da. Airea ez da udalerrira batera mugatzen. Durangoko galdategietako kea Zornotzara ere iritsi daiteke. Gainera, airearen kalitatea mundu osoan aintzat hartutako parametrokin neurtu beharko litzateke, eta instituzioek araudi gogorragoak onartu



GORKA PEREZ RODRIGUEZ

San Fausto Berria

beharko lituzkete. Zer eskatzen diezue instituzioei?

Gardenagoak izan daitezten. Arazoa hor dago, kalean pilatutako zaborra bezain begi-bistakoa ez den arren. Ez dugu ikusten zer arnasten dugun. Gauza onak azaltzeko agertu ohi diren lez, osasun-egoeragaz lotutako gai honen aurrean ere agertu beharko liriteke: airea txarra bada onartu eta hori aldatzen saiatzeko.

Hurbiletik

"Datu errealek gura ditugu, eta airean dauden partikulak kaltegarriak diren argitzea"

Arduratuta bizi dute airearen kalitatea San Roke auzoan. Aspaldiko kontua dute, gainera. Airean dauden partikulak osasunerako kaltegarriak diren argitzea eskatzen dute.

Nola bizi duzue airearen kalitatea San Roken?

Ardura bat badago, oro har. Auzoko eta inguruetako fabrikek isuritakoa arnasten dugu. Hala ere, aspaldiko gura da. Udalgaz hainbat bider batzartu gara eta Fumbarrigaz protokolo bat sortzen saiatu gara. Gertuen bizi direnek —Ziritza eta Bustintza kaleetan—

etengabe dituzte leihoak zikin, eta bakoitzean kolore bat duen kea ikusten dute. Airean partikularik badagoen, kutsakorrak badiren, ez dakigu.

Hatsa ere sumatu da.

Bai. Baina horren jatorriaz zalantzak ditugu. Horregatik, udalak eta Jaurralitzak usain hori nondik datorren eta osasunerako kaltegarria den argitzea gura dugu; beraiek dituzte horretarako baliabideak.

Neurgailuak amatatu ote diren susmorik duzue?

San Rokeko eskolan dagoen neurketa-estazioko datuak baino ez ditugu.



PERIKO AREVALO ELORZA

Herria

Izan dira etenak, beti kutsadura mailarik gorenean egon ostean, eta ez dakigu zergatik. Baina duela bi hile jarritako neurgailu berriaren daturik ez dugu. Ikusi liteke pertsonen joan-etorria, baina datuek erakutsiko dute etenik egon den ala ez, eta horren zergatia argitu beharko dute. Datu errealek eta argibideak gura ditugu, eta airean dauden partikulak osasunerako kaltegarriak diren argitzea.

anboto komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2017ko abenduaren 22a
16. urtea - 703. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
11.500 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Materia organikoa batzeko dinamikari bultzada eman gura dio Amankomunazgoak 2018an

“Gizarte ongizatea helburu duen aurrekontu proposamena” aurkeztu du Amankomunazgoko gobernu taldeak

DURANGALDEA • MARKEL ONAINDIA

Materia organikoa batu eta birziklatzeko dinamikari bultzada eman gura dio Amankomunazgoak 2018an. Bere barne hartzen dituen herri guztietara hedatuta daude bilketa eta konpostaje zerbitzuak –Durango kenduta, hondakinak bere kabuz gestionatzen baititu–, eta herritarrak dinamikara batzea izango da helburu nagusia, ikastetxeetan gaia lantzeaz gainera. Organikoarena da 2018rako aurreikusitako ildoetako bat, EH Bilduren eta Herriaren Eskubidearen gobernuaren proposamenen jaso. Atzo iluntzean aurkeztu zuten, Astolan eginiko osoko bilkuran –ANBOTOk erredakzioa zarratuta zegoen ordurako–.

Aitor Lopez presidenteak dio organikoa batuta bilketa selektiboa indartzen dela, eta eskualdeari on egiten diola gainera. Horregatik, *On egin* izeneko kanpaina ipini dute martxan, eta 94 623 25 22 telefonora deituta edo al21.mdurango@bizkaia.org helbidera idatzita apun-



lurretan bezala, eskualdeko herrietan organikoa batzeko kontainer marroiak daude.

Gizarte larrialdietarako 150.000 euro gehiago ipintzea da Lopezek emandako adibide bat

tatu ahal da. Zerbitzua hobetu ahal izateko, zaborra batzeko kamioi bi erosiko dituzte.

Bestalde, “gizarte ongizatea helburu duen aurrekontu proposamena” da. Gizarte larrialdietarako

150.000 euro gehiago ipintzea, gaueko harrera zerbitzua urte osoa hedatzea, etxeko laguntza zerbitzua garatzea eta enplegu programak sustatzea jarri ditu adibide, besteak beste.

Herriko ondarea berreskuratzeko lanean jarraitzen dute Berrizen

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Berrizko ondarea berreskuratzeko asmoz, lanean dabil udala. Hori horrela, Labayru fundazioagaz batera sortutako *Arrierreka*, *uraren indarra* eta *Baserria*, *gure zuztarrak ezagutzen* liburuxkak banatuko dizkiete hile honetan berriztarrei.

Herriko ondarea batzeko ibilbidea 2008an hasi zuen udalak eta, orduz geroztik, herriko ondare etnografikoaren eta linguistikoaren inguruan jardun dira, besteak beste.

Aurten, herriak izan dituen aldaketak erakusteko, *Arrierreka* erreka Berrizen egiten duen ibilbidea ezagutarazi dute liburuxka honetan. Baita herriaren historian baserriek izan duten garrantzia ere.

Aboiz jatetxeko Dani Garcia, estatuko sukaldari onena izateko hautagai

GARAI • MARKEL ONAINDIA

Apirilean Bartzelonan garatuko den Alimentaria topaketa gastronomikoan urteko sukaldari onenaren lehiaketa jokatu da, eta bertan egongo da Garai Aboiz jatetxeko Dani Garcia sukaldaria. Beste zazpi finalista-gaz batera jokatu du txapela.

Joan zen astean Bilbon izan zen estatuko iparraldeko eremuko sailkapen saioa, eta bertan finalerako txartela lortu zuen Garciak. Beragaz, Hondarribiko Laia jatetxeko Asier Alcalde ere joango da finalera.

Errekonozimendu handiko lehiaketa da Alimentariakoa, eta zazpigarren edizioa da honakoa. Besteak beste, Martin Berasategi eta Jordi Cruz sukaldariak dira epaileetako batzuk.

Zentroko egitura hormigoizkoa da eta suteak ez du kalte handirik eragin

Azpiegitura elektrikoa konpondu eta gela bateko altzariak berrituko dituzte



Joan zen asteko martitzenean gertatu zen sutea.

ZORNOTZA • JOSEBA DERTEANO

Zornotzako adin txikikoen lehen harrerarako zentroan izandako suteak ez du kalte handirik eragin. Eraikineko egitura —hormak zein teilatua— hormigoizkoa da eta horrek sua ez zabaltzen lagundu zuen.

Gelako lau literak eta bertan lo egiten zuten zortzi lagun arropa erre ziren. Hango azpiegitura elektrikoa ere kaltetu zen. Su handia piztu zen denbora gutxian, baina momentukoa izan zen. Altzariak

berritzea, angindarra berriztatzea eta leihoak aldatzea dira egingo dituzten lanak. Zentroa berriro ahalik eta arinen zabaltzeko ahaleginetan dabilza, ANBOTOk jakin izan duenez.

Zentroa dagoen eraikina berritarren bizilekua izan zen saio batean. Teiltupeko solairuak hazia, belarra eta antzerakoak gordetzeko erabiltzen zuten. Ondorioz, suteen arriskua zegoen eta horregatik du hormigoizko egitura teiltuak.

Sute horregaz lotuta adin txikiko lagun bat atxilotu dutela informatu zuen Estefania Beltran de Heredia Barne sailburuak joan zen astean. Orain sua nahita eragin zuen edo arduragabekeria baten ondorioa izan zen ikertuko dute.

hitz liburudenda
artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

#gomendioak

HELDUENTZAT BARABAROAK BARATZEAN Luis Garde (2017)

MOKO TXIKI UME ETA GAZTEENTZAT Leire Bilbao & Maite Mutuberria (2017)

MIKEL LABOA Delorean (2017)

CERAMICAS
MACOBER
MATERIAL DE CONSTRUCCION
ERAIKUNTZAKO MATERIALA ZERAMIKA ETA GRESA
Eitua industr., 66 BERRIZ - Tel.: 946 827 890
Tronperri kalea, 1 DURANGO - Tel.: 946 811 727

Durangoko institutua eskolaz kanpoko orduetan jolasteko zabaldu ahal izatea eskatuko dute

Durangon Gazteleku bat sortzen hasteko proiektua iragarri zuen osoko bilkuran EAJ eta PSE-EEren gobernu taldeak



Institutuari izena aldatu gura dio udalak, eta eskolaz kanpo bertan jolasteko aukera eskaintzea ere gura du.

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

Herrian umeez jolasteko dituzten espazioen inguruko eztabaida bizi dabil, eta martitzeneko osoko bilkuran ere ondo islatu zen hori. Alde batetik, 2018rako aurrekontuan atal berezi bat eskainiko diotelako gaiari, eta bestetik, ikastetxe publikoen eskolaz kanpoko ordutegia ere zabaldu gura dutelako, umeez bertan jolasteko aukera eduki dezaten. Tartean, institutua ere bai.

Azaroan jaiotako gurasoen plataformakoen ustez, “Durangon ez dago eskaintza duinik 0-16 urte artekoentzat”. Euren agertutako beharriaz erantzuteko asmoz, Durangon gazteleku bat sortzen hasteko proiektua iragarri zuen

EAJ eta PSE-EEren gobernu taldeak. ANBOTOK jakin ahal izan duenez, ideia garatuta eta aurreratuta dute, baina guztiz zehaztu aurretik, gurasoen plataformakoeekin batu gura dute euren iritzia ezagutzeko.

Institutuari izena aldatzea gura dute, Fray Juan Zumarragak indigenen aurka egin zuelako

Proiektuaren lehen pausoak emateko, 40.000 euro gorde ditu udalak datorren urterako aurrekontuan.

Gurasoek euren ideiak jaso eta proposamenak eraiki gura di-

tuzte denen artean, euren kexei bidea eman ahal izateko.

Ikastetxeak zabaltzea

Herriko ikastetxe publikoen ordutegiak handitzeko proposamen bat aurkeztu zuen osoko bilkuran EH Bilduk, eta PPren abstentzioa kenduta, gainerako denek babestu zuten. Mozioaren arabera, neguan ordu bi gehiagoz egongo dira eskoletako instalazioak zabalik, eta udan beste ordubetez. Ordu horietan argiztapena izatea ere bertan dute.

Landako eta Zabalarra eskolatan aldaketak egitea udalaren esku dago, baina institutuaren kasuan, Eusko Jaurlaritzari tratatu batera

heltzeko eskaera egingo diote, bera baita zentroaren arduraduna.

Izena aldatu?

Ikastetxeen gaiaren harira, eta Jaurlaritzari proposamen bat egingo zaiola aprobetxatuta, PSE-EEK beste eskaera bat txertatu zuen onartutako mozioan: Fray Juan Zumarraga institutuari izena aldatzea. Pilar Riosek esplikatu zuen Fray Juan Zumarragak Mexikoko indigenen aurka egin zuela erakusten duten iritzi sendoak daudela, eta, gainera, emakumeen sorigehizan ere jardun zuela.

Institutuak 50 urte betetzen ditu aurten, eta izena aldatzeko “sasoia” izan daiteke Riosen ustez.

Kiroldegiko gainkostuagatik erantzukizuna eskatuko dute

DURANGO • M.O.

Igerilekuak jasotzen dituen Landako II kiroldegiak 8,8 milioi euroko aurrekontua eduki zuen hasieran, eta, aldaketen eraginez, 12 milioira heldu zen azkenean. EH Bilduk bilkuran salatu zuenez, konponketengatik egondako gainkostua 340.000 eurotik gorakoa da; datu hori 2012koa da, eta beraz, kopurua handitu egingo zen. Oraindik ere hainbat matxura eta arazo daudela ohartarazi zuen Eider Uribe zinegotziak. Oposizioko lehen alderdiaren ustez, gainkostu hori enpresa eraikitzaileak ordaindu beharko luke, ez udalak herritarren dirua erabilia. Gainera, enpresak abal bat eduki duela eta udalak hori bueltatu izana ere kritikatu zuen Uribek. Bada, udalak erantzukizunak eskatuko ditu, EH Bilduren proposamena PPK ez beste guztiek babestu zutelako.

EAJko Goiztidi Diazek adostasuna agertu zuen, ardurak eskatzeko arazorik ez dutela argituta. Pilar Riosek (PSE-EE) uste du enpresa eraikitzailea eta diseinua egin zuena direla erantzuleak. Julian Riosi (Herriaren Eskubidea) “harrizkoa” iruditzen zaio 2010etik hona gai honetan pausorik eman ez izana, eta informazioa eskatu zuen.

‘Movember’ ekimenagaz 1.340 euro batu dituzte minbiziaren aurka

DURANGO • M.O.

Movember ekimenagaz 1.340 euro batu dituzte Durangon, minbiziaren aurka egiteko. Durango Rugby Taldeko kideek sustatu dute bibotea uzteko kanpaina solidarioa herrian, eta eskerrak eman gura dizkiete parte hartu duten gainerako elkartei, jokalariei, zaleei eta herritarrei.

“Munduan jasoko diren milioi euroetara, Durangotik 1.340 euro gehituko ditugu prostata eta barrabletako minbiziak ekiditeko programak finantzatzeko”, esplikatu dute DRTkoek prentsara bidalitako oharrean. Azaroko egunetan bibotea utzita, kontzientziazioa hedatzea eta diru ekarpena egitea dira mundu osoan egiten den *Movember* ekimenaren helburuak.

Aurrekontua herritarren partaidetza barik lantzea kritikatu du oposizioak

Udal aurrekontuaren inguruan ika-mika sortu zen gobernuaren eta alderdien artean



Alkatearen kalitateko botoagaz onartu zuten 2018rako aurrekontua.

Durangok badauka 2018rako udal aurrekontua. EAJ eta PSE-EEren gobernu taldeak ez zuen beste inoren babesik jaso, baina PP abstentuta, gobernuaren eta oposizioaren arteko berdinketa hautsi zen, alkatearen kalitateko botoagaz.

32 milioi euroko aurrekontu “errealista eta orekatua” dela esan zuen Pilar Rios alkateordeak, eta “ukitu sozial handikoa” ere bai. Besteak beste, gaztelekuaren sorrera eta langabeentzako la-

guntzak aipatu zituen adibide lez Riosek. Gainera, garrantzi berezia eman zion berdintasun arloko politikari.

EH Bilduk eta Herriaren Eskubideak arrazoi ugari eman zituzten aurka bozkatzeko. Oinarrian, aurrekonturako herritarren partaidetza sustatu ez izana ez dute begi onez ikusi. Duela hile batzuk parte-hartze ordenantza onartu zela gogoratu zuten, eta bertan aurrekontuak era zabalean lantzeko aukera jasotzen dela. Gainera, salatu zuten batzordeetako presidente bakarrak eman diela aurrekontuari buruzko informazioa. EAJk oposizioari kritika egin zion, adostasunera ez heltzeagatik. “Lanean hasteko” deia egin zien.

on egin



Hondakin organikoak ongarri bihurtuz,
on egin lurrari, inguruari, osasunari...

Eman izena, edukiontzi marroia erabiltzeko:
94 623 25 22 · al21.mdurango@bizkaia.org

Urigoitiaren kasua ireki daitekeen aztertuko du Iñigo Iruin abokatuak

Proposamen bat egingo dio Otxandioko Udalari, ondoren honek baloratu dezan



Aurten, Santamaña jaietan Urigoitiagaz gertatu zena gogoratzen duen murala inauguratu dute.

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO

Luzia Urigoitiaren kasua berriro ireki daitekeen jakin gura du Otxandioko Udalak. Urigoitia 1987an hil zuten, tiroz, Guardia Zibilak Trintxerpen (Pasaia, Gipuzkoa) eginiko sarekada batean. Ildo horretatik, Iñigo Iruin abokatu-

gaz batu dira, eta honek proposamen bat aurkeztuko die, udalak baloratu dezan.

Iruin Urigoitiaren familiaren abokatuak izan zen bere sasoiaren. Berak egin zuen ikerketa lana. Orduan epaileak kasua artxibatzea erabaki zuen, zegoen informazioa-

gaz guardia zibilak, ustezko hiltzaileak, epaitzeko froga nahikorik ez zegoela iritzita. 2000. urte inguruan artxibatu zen. Kasua berriro ireki ahal izateko, beharrezkoa da artxibatu zenetik hona garrantziko gertaera edo informazioaren bat irten izana. Hori ikertzeko gura

dute Iruinen laguntza. “Kasua berriro irekitzea justifikatuko lukeen froga berririk edo garrantziko gertaerarik agertu den aztertuko eta horren gaineko balorazio bat egiteko eskatu diogu. Berak proposamen bat aurkeztuko digu, eta horren ondoren erabakiko dugu aurrera jarraitu ala ez”, azaldu du Urtzi Armendariz alkateak.

Biktimen errekonozimendua
2015eko irailean lau lagun atxilotu zituzten Luzia Urigoitia omentzea

“Kasua berriro irekitzea justifikatuko lukeen garrantziko gertaerarik agertu den aztertuko du”

Jaurlaritzako ‘Biktimen Udal Erretratuak’ txostenean biktima lez aitortuta dago Urigoitia

egotzita. Madrilgo Auzitegi Nazionalean epaitu ostean ez zuten kartzelara joan beharrik izan, zigorrak ez zirelako urte bitik gorakoak. Orduan, udalak konpromiso bat hartu zuen: indarkeriaren biktima izan diren herritarren memoria zaintzea eta kasu horiek argitzen saiatzea. Konpromiso horien ondorioa dira orain ematen ari diren urratsak. Luzia Urigoitia Eusko Jaurlaritzako ‘Biktimen Udal Erretratuak’ txostenean agertzen da eta biktima lez aitortuta dago.

Baserri bik Arabako eta Bizkaiko Aldundietatik jaso dute OHZaren faktura

OTXANDIO • J.D.

Baserri bik Bizkaiko Aldunditik eta Arabakotik, bietatik jaso dute Ondasun Higiezin Zerga (OHZ) ordaintzeko ordainagiria aurten. Otxandio eta Aramaio artean daude baserriak, herri biek historikoki nor berea dela aldarrikatu duten lur zatian. Baina baserri horiei dagokienez, ez zegoen dudarik 2000. urteaz geroztik. Izan ere, mende hasieran Aldundi biak eta udal biak batu ziren batzarrean, muga batzuk finkatu zituzten eta akordio bat sinatu zuten. Baserri biak Aramaioren eskuduntzan geratu ziren eta, harrezkero, Arabatik kobratu diete OHZa.

Aurten, ordea, Arabakoaz gainera, Bizkaiko IBlaren faktura ere jaso dute lur zati horien jabeek. Bizkaiko Aldundiak GeoEuskadiko (Euskadiko espazio datuak jasotzen dituen ataria) mapak erabili ditu oinarri moduan. Urtzi Armendariz Otxandioko alkatearen arabera, mapa horiek “txarto” daude.

Udalak jakinarazi zion hori gutzia Aldundiari. “Euren erantzuna baserriak Bizkaia direla izan da”, dio Armendarizek. Udala ez dago ados eta berriro erantzungo diote 2000. urteko akordioa ez dutela errespetatzen gogoratuz eta darabilten mapa oker dagoela gaineratuz.

Gazteen arteko kontsumo ohiturak aldatzeko asmoz truke azoka antolatu dute Zaldibarren

Neguko ekintza bereziak antolatu dituzte Gazte Lekuan. Abenduaren 26an, esaterako, gaupasa egingo dute

ZALDIBAR • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Aurten ere neguko ekintza bereziak antolatu dituzte Zaldibarko Gazte Lekuan. Gaur eta bihar, esaterako, gazteen arteko kontsumo ohiturak aldatzeko asmoz truke azoka egingo dute. “Gazteek bigarren eskuko opariak egiteko eta gizartean dagoen kontsumismo hori bajatzeko asmoz antolatu dugu”, adierazi du Oihane Sanchez Txatxilipurdiko koordinatzaileak. Truke azoka Gazte Lekuan egingo dute, 17:00etatik 20:30era bitartean.

Horrez gain, gaur, herrian San Tomas eguna ospatzen dela aprobetxatuz talo tailerra egingo dute. Zapatuan, berriz, herriko gazte bik kontzertu akustikoa eskainiko dute Gazte Lekuan.

Bestalde, abenduaren 26an Gazte Lekuan gaupasa egingo dute. Sanchezek jakitera eman duenez, gazteek eskatutako ekintza hau aurrez ere egin dute.

Hilaren 27an, berriz, film bat ikusiko dute. Neguko ekintza berezi hauei abenduaren 30ean eman go diete amaiera, Durangoko izotz-pistara egingo duten irteeragaz.

“Gazte Lekuan antolatutako ekintza hauetan Zaldibarko 12 eta 16 urte bitarteko edozein gazte parte hartu dezake”, bukatu du Txatxilipurdiko koordinatzaileak.



Zaldibarko 12 eta 16 urte bitarteko gazteentzat dago zabalik Gazte Lekua.

Errekondo taberna esleitzeko bigarren saiakera ere kamuts irten zaio udalari

MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO

Uztailean Errekondo tabernaren kudeaketa esleitzeko lehiaketa publikoa abiatu zuen udalak. Proposamen bakarra aurkeztu zen eta bera epea kanpo. Beraz, ezin izan zuten esleitu. Jende gehiago animatu zedin oinarriak malgutu zituzten (alokairu merkeagoa...) eta bigarren saiakera egin zuten. Oraingo honetan ere ez dute helburua lortu. Proposamen bat izan da eta baldintzak betetzen zituen, baina ezin izan ditu bermeak aurkeztu. Tabernaren esleipena “nahikoa buruhauste” sortzen ari zaien gaia dela onartu du Endika Jaio alkateak. Momentuz ez dute beste erabakirik hartu eta zer egin hausnartzen ari direla azaldu du.

Elorrioko trenbide zaharra bidegorri bihurtu gura du udalak, datorren wudaberrirako

Trenak gurutzatzen zuen tunela atontzea izango da lan hauetako erronketako bat

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

1975ean azken trena Elorrioko geltokitik irten zenetik bide horren zati bat "ahaztuta" egon dela jakitera eman du asteon Elorrioko Udalak. Prentsa ohar bidez jakinarazi dutenez, orain arte lur horiek Adif enpresaren jabetzakoak ziren, baina, udalak eta enpresak sinatutako akordioari esker, lurak Elorrioko Udalarenak izatera pasatu dira. "Adif-en jabetzakoak ziren lurak elorriarrenak izango dira aurreran-

tzean", adierazi du Idoia Buruaga Elorrioko alkateak.

Datorren urteko udaberrirako bukatzea aurreikusi dituzten lanei esker, herrigunearan dagoen autokarabana gunetik San Agustin auzoraino bidegorria izango dute elorriarrek. "Datorren urtetik aurrera, herrigunetik abiatu eta basoan barrena joango den bidegorri bat izango dugu herrian. Albiste oso pozgarria da elorriarrentzat", esan du Buruagak.

1975era arte martxan egon zen trenak tunel ilun bat gurutzatzen zuen ibilbidean zehar, eta udalaren erronketako bat hori atontzea izango da. Hori horrela, eguzki energia-gaz elikatzen diren LED argiak jartzeari aztertzen dabilzala adierazi dute. Horrez gain, bidea atondu eta ibilbide guztian seinaleak jarriko dituzte. "Helburu nagusietako bat inguruaren nortasuna ahalik eta gehien errespetatzea izango da", bukatu du alkateak.



Trenak gurutzatzen zuen tunela atonduko dute.

Osasun gida

anboto

Optometria
PSE: 162/13

keinu optometria zentroa

Naila Zabala Azumendi
11587 kol. zk.

- Optometriaren teknika aintzindariak.
- Kontaktologia.
- Haurren ikusmena.
- Ikusmen terapia.
- Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia.
- SENA estimulazio neuroauditiboa.
- Orto-k.

Arkaraz 3
48240 Berriz
tel: 946225099

www.keinuoptometriazentroa.com

Pedagogia
PSE: 63/63

UGATZ

UMEAREN GARAPENERAKO ZENTROA
Laguntza goiztiarra, psikomotrizitatea, fisioterapia, logopedia

Juan Olazarán, 1 behea
DURANGO
ugatz@hotmail.es
944 668 370 - 615 782 090

Fisioterapia
PSE: 119/13

Zainduz

FISIOTERAPIA OSTEOPATIA

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea
behea eskuma
MATIENA-ABADIÑO

944 657 132 - 686 906 374

Fisioterapia
PSE: 57/16

pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia

Muruetatorre, 2D
DURANGO

pzubizarreta@gmail.com
946 550 049 - 695 784 963

Fisioterapia
PSE: 155/17

HOBETU
Fisioterapia & Podologia

info@hobetu.es
T/ 946 582 444

K/ Buzkantz kalea, 2
P.K./ 48230 Elorrio
www.hobetu.es

Podologia
PSE: 148/13

PAUSOZ PAUSO
PODOLOGIA KLINIKA

GOIATZ MURUA
Podologoa
AINHOA ELORZA
Podologoa
NEREA RODRIGUEZ
Podologoa

Kiropodia, onikopatia,
alterazi dermatologikoak
eta ibilerako alterazioak

Monagotorre, 4 behea DURANGO
946 203 630

Odontologia
PSE: 145/13

clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALITATEAK
08:00etatik 21:00etara ZABALIK

{Muruetatorre, 2C blokea, behea}
DURANGO
Tel.: 946 819 951
Mug.: 717 194 454
uecdental@gmail.com

Odontologia
PSE: 112/13

J.L. URRETA ZABALO
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
Ortodontzia

Zumalakarregi, 18 - 1. ezk.
48200 DURANGO
Tel.: 946 812 200

Estetika
PSE: 16/09

AGIRRE KLINIKA
MEDIKUNTZA ESTETIKOA

www.medicinaesteticaedurango.com

Laser berria:
Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitatea-zelulitisa, Laserra: depilazioa
(prezio bereziak), barizeak... Adinaren
kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...

Txatxiena, 6
48200 - DURANGO
Tel.: 946 810 387

Psikologia
PSE: 62/11

JON ARRUABARRENA
PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK

Frantzisko Ibarra, 6 DURANGO
jon@psikologo.biz - www.psikologo.biz
Tel.: 946 033 246 - 629 245 728

Mila jostailu inguru batu dituzte jubilatuen tabernan jarritako arbola solidarioaren bidez

“Ez genuen pentsatzen horrelako harrera izango zuenik”, dio Nerea Zarandona ekimenaren antolatzaileak

ABADIÑO • JOSEBA DERTEANO

Zelaietako jubilatuen tabernako arduradunek ongintzazko ekimen bat burutu dute aurten. Gabonetako arbola bat jarri dute tabernan, eta apaingarriak alboan. Jostailuak eramatearen truke, apaingarriak arbolan eskegitzeko aukera izan dute herritarrek. Aurreikusitakoa baino askoz harrera hobea izan du ekimenak, eta mila bat jostailu batu dituzte.

“Ez genuen pentsatzen horrelako harrera izango zuenik. Arbola inguru eta biltegia jostailuz beteta izan ditugu: bizikletak, patineteak, jostailuzko motorrak, panpinak... ikaragarria izan da”, adierazi du Nerea Zarandona jubilatuen tabernako kudeatzaileak. “Sarritan umeak eurak etorri dira jostailuak arbolaren ondoan uztera. Gainera, jostailu batzuk umeek eurek etxean egindakoak izan dira”, gaineratu du. Jostailu denak atzo batu eta Caritas elkartera bideratu zituzten, behar dituzten umeen artean banatu ditzaten haiek.

Aurten lehenengoz

Aurten lehenengoz egin dute ongintzazko ekimen hori. Elikagaien Bankuagaz saiatu ziren lehenengo, baina euren kanpaina amaituta zegoen. Ondoren, jubila-

Bizikletak, patineteak, jostailuzko motorrak, panpinak... jaso dituzte herritarren partetik

tu batzuen bidez Caritas elkartegaz hartu-emanetan jarri ziren, Abadiñon bulego bat dute eta. “Zer egin genezakeen pentsatzen aritu ginen, eta Olentzero laster zetorrenez, jostailuak batzea eta umei begirako zerbait egitea ideia ona iruditu zitzaigun”, gogoratu du Zarandonak.

Ekimenaren balorazio positiboa egiten dute eta datorren urtean ere ekimena berriro egitea hausnartuko dute.



Atzo jostailu denak batu eta Caritas elkarteri eman zizkioten.

Herri bideetan erabilera berezi bat egin aurretik baimena eskatu beharko da

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Duela urtebete inguru herri bideen inbentarioa onartu zuten Atxondon. Asteon udalak beste pauso bat eman du eta herri bide horiek arautzeko ordenantza onartu du.

“Udalarenak diren bideetan erabilera berezi bat egin aurretik baimena eskatu beharko da”, adierazi zuen David Cobos alkateak. Esaterako, basoan pinua ateratzerako orduan mugituko den lur kopuruaren arabera herritarrek fidantza bat eta kanon bat ordaindu beharko dituztela jakitera eman zuten. Fidantzarik altuena 15.000 eurokoa izango da; 4.000 metro kubiko baino gehiago mugitzen duten herritarrek izango dute.

Hile eta erdian Asiako liztorraren zazpi erlauntza kendu ditu Basalanekek

IZURTZA • J.D.

Asiako liztorra gero eta espezie zabalduagoa da Euskal Herrian. Izurtzan, esaterako, liztor mota horren zazpi erlauntza erretiratu ditu Aldundiko Basalan sailak azken hile eta erdian, udal arduradunek informatu dutenez. Gehienak Mañaria erre-karen inguruko zuhaitzetan zeuden. Erlauntza bat aurkitzen dutenean, udalak Aldundiari abisua pasatzen dio protokolo bati jarraituz, eta eurak egiten dira egoeraren kargu.

Hondurasen genero ikuspegia duen egitasmoa lagunduko du lurretak

Hondurasako Ingibuca departamentuan amaren eta haurren morbiditateak gutxitu guran, Medicus Mundi Bizkaiak garatuko duen proiektua lagunduko du udalak



Hondurasako Ingibuca departamentuan garatuko du proiektua Medicus Mundi Bizkaiak

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Iurretako Udalak Medicus Mundi Bizkaia erakundeari emango dio Garapenerako Lankidetzako proiektuaren gordetako dirua. Hondurasko Ingibuca departamentuko

gazteen eta nerabeen parte-hartze komunitarioa funtsezko kate-maila da haurduntze goiztiarrak eta ama-umeen heriotza-tasa gutxitzeko katean, eta horretan lan egin gura du Medicus Mundi Bizkaiak.

Helburua da amaren eta haurren morbiditateak gutxitzea

Genero ikuspegia duen proiektu honi 4.967,84 euro gaz lagunduko dio lurretak.

Helburua da amaren eta haurren morbiditateak —gaixotasun baten ondoriozko heriotza-tasa— gutxitzea, udal ordezkariak azaldu dutenez. Eta baita amen eta umeen osasuna sustatzea ere, gazte eta nerabeen parte-hartze sozialagaz. Gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren Sustapena eta Osasuna lankidetzaren arloan kokatzen da. Proiektua garatzeko 7.736 euro behar dituzte. Tokiko elkarrekin %13ko ekarpena egingo du, eta Medicus Mundi Bizkaiak, %11,20koa.

Genero ikuspegia duen proiektu honi 4.967,84 euro gaz lagunduko dio lurretak

Herrialde behartsuenekiko elkartasun konpromisoa mantentzea du helburu Garapenerako Lankidetzaren funtsak, horien garapena eta bertako baldintza sozialak hobetze aldera. 2017ko deialdira Guatemalan, Hondurasen, Senegalen, Nikaraguan eta Bolivian egin gura dituzten sei proiektu aurkeztu dituzte guztira.

Mikel Sarasolak kayakean bizitako abenturak kontatuko ditu Mallabian

MALLABIA • J.D.

Mikel Sarasola donostiarra espezialista da muturreko kayak jaitsierak egiten. Munduko toki askotan jarri du proban bere afizioa. Hori denak hizpide izango ditu abenduaren 28an Mallabian eskainiko duen hitzaldian. Udalak antolatutako ekimena 19:00etan hasiko da, Kontzejuzarren. Bere ibilaren inguruko ikus-entzunezkoak ere eskainiko dute hitzaldian. Bere dokumentalak hainbat jaialditan saritu dituzte.



Julen Uribe

Harek denporak!

MIKEL GOÑIREN EZKONTZAKO GONBIDATUAK

Gabon buelta honetan bazkari eta afari ederrak egingo ditugu guztiok, senide eta lagunenguz inguratuta. Euskaldunok ondo dakigu jan-edanean, eta horretarako motiboak hainbat izaten ditugu. Atzera begira ipinita, 2001eko abenduan ere bazkari elegantea egin zuen lagun koadrila hau topatu dugu. Mikel Goñi pilotari ohiaren ezkontzako argazkia da, Julen Uribe argazkilariak ateratakoa eta

ANBOToren 5. alean argitaratutakoa. 500 bat gonbidatu egon ziren ezkontzan, eta horietako batzuk Berrizko pilotariak izan ziren. Oronozen ezkontzara, Iruñera joan ziren ospatzera.

Maialen Lujanbiori 2017ko txapela jantzi dion Sebastian Lizaso bertsolaria ere ageri da eurekin; saltsero eta umoretsu, beti lez. Ez dakigu berriro elkartu ote diren, baina, hemendik, on egin guztioi! **M.O.**

Sei hankako mahaia

Pilar Ríos
Ramos
PSE-EE



Aurrekontuak izateak duen garrantzia

Lehenik eta behin nabarmendu nahi dut zein garrantzitsua den aurrekontuak izatea, udalerrian hobekuntzak egiteko tresna nagusia da eta. Aurrekontu errealistak, herritarrek dituzten beharrezkoak diren erantzuna emateko, gehienbat babesgabeen beharrei. Aste honetan ikusi dugunez, Carmenak ez du inolako zalantzarik izan Madrilgo Ogasun Saileko zinegotzia kargutik kendu, eta aurrekontuak aurrera ateratzeko, udalerriarantz beharrezkoak direla azaldu ondoren.

Durangon aurkeztu ditugun aurrekontuak ere garrantzizkoak dira, sentsibiltate politiko desberdinen artean lortutako adostasunaren emaitza direlako. Gobernu-taldea eratzen dugun alderdien arteko akordioa dute abiaburu. Garrantzizkoak direla esan dut, herritar gehienak aintzat hartzen dituen proiektua ordezkatzeko dutelako, eta udal-gobernuari egonkortasuna ematen diotelako, eta hori ona da durangarrentzat.

Gainera, eduki sozial handiko aurrekontuak dira. Gastuaren zati handi batek Durangoko herritarren ongizatea hobetzea izango du xede, batez ere behartsuen: langabe, gazte eta adinekona; Adibidez, Enplegu planak, Etxeko janari-zerbitzua adinekoentzat, gazteentzako etxebizitzak, Gaztelekua, eta beste hamaika proiektu.

Zorionak eta urte berri on!

Durungaldea asteen

EAJk Zelaietako urbanizazioa bultzatu duela jakitera eman du asteen

Abadiño | 2018ko aurrekontua onartzerakoan, Abadiñoeko EAJk lau lehentasun ezarri dituela jakitera eman du asteen: 1,2 milioi euro inguruko inbertsioa duen Zelaietako urbanizazioa, Matiena auzoko aparkalekua, umeentzako parkeen estaltzea eta airearen kalitatearen jarraipena. Iñaki Rekalde zinegotziak adierazi duenez, "krisi-ekonomikoko egoera batetik irten gara, eta horri esker, inbertsioak egiten hasi ahal gara orain".

Bigarren eskuko azoka egingo dute abenduaren 24an, herriko plazan

Elorrio | Bigarren eskuko deneriko artikuluekin, abenduaren 24an azoka jarriko dute plazan, 09:00etatik 15:30era. Antolatzaileek adierazi dutenez, gabonetan ere bestelako kontsumo eredu bat bultzatu gura dute azokaren 23. edizioan, berrerabilpena eta birziklapena bultzatuz. Horrez gain, herritarren kontsumo ohiturak murriztea ere gura dute.

Dendak Bai elkarteak 5.000 egutegi jarri ditu herritarren eskura Durangon

Durango | Gabonetara begira Durangaldeko Dendak Bai 5.000 egutegi kaleratu ditu. Elkarteak jakitera eman duenez, Durangoko Udalaren laguntzagaz ateratako egutegiko argazkiak irail eta urri bitartean egindako argazki lehiaketara aurkeztutakoak dira.

Bestalde, Landako Guneko izotz-pistarako 1.300 gonbidapen ere banatuko dituztela jakinarazi dute. Horrez gain, abenduaren 27 eta 28an txu-txu trenea egongo dela ohartarazi dute.



2008az geroztik preso dagoen Aritz Arginzoniz otsailean aske geldituko da

Elorrio | Espainian duen kondena bete ostean, otsailean aske geldituko da Aritz Arginzoniz. Elorriarra bigarrenez epaitu dute, Frantzia oraindik, Aitzol Iriondo lasartearragaz batera. "Aritz Frantzia 10 urteko kartzela zigorra eskatzen zioten arren, Espainian bete duen kondena handiagoa denez Frantziakoa deuseztatu du epai-leak konfusa delakoa aplikatuta", adierazi du Maite Arginzonizek. Hori horrela, 2008az geroztik preso egon den Arginzoniz otsailean aske geldituko da.

Aritz Arginzonizen zenbait senitarteko eta lagun izan dira asteen Parisen, presoari babes eskaintzen.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:
Bixente Kapanaga 9, IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

Urte berrian on egin!

Toki Garapena, Hondakin bilketa, Gizarte Zerbitzuak, Euskara, Kirolak eta Kontsumo bulegoa

ABADIÑO · ATXONDO · DURANGO · ELORRIO · IURRETA · IZURTZA · MAÑARIA · ZALDIBAR

www.mdurango.org

Durangoko Merinaldearen Amankomunitatea
Mancomunidad de la Merindad de Durango



Urteko azkena

BERTSO SAIOA
DURANGO :: Abenduak 30

Urteko azkeneko bertso saioa, Plateruenean.

Maialen Lujanbiok, Igor Elortzak, Aitor Mendiluzek, Miren Artetxek, Sustrai Colinak eta Amets Arzallusek urteko azken bertso saioan parte hartuko dute. Gai-jartzaile lanetan Unai Iturriaga arituko da. Ez da sarre-rik geratzen.

Abenduaren 22an

ELORRIO azoka
Eskoletako umeen San Tomas azoka, bertsoak eta gabon kantak, goizean, plazan.

ZALDIBAR tailerra Talo tailerra, San Tomas azokan, 18:00etan, Kultur etxean.

BERRIZ ikuskizuna
'Ilusioaren indarra' Hodei magoagaz, 18:00etan, Kultur Etxean.

ZORNOTZA kontzertua
Zubiaur musika eskolaren eskutik, 'Gabonetako kontzertua', 21:00etan, Zornotza aretoan.

ELORRIO kontzertua
Sofa eta Borrokan taldeak, 22:30etan, Ateneon.

ELORRIO emanaldia
'Black Mirror', 22:00etan, gaztetxean.

Abenduaren 23an

ELORRIO lasterketa
'Santxibiri' herri lasterketa, 11:45ean umeena; 12:30ean helduena, plazan.

ZORNOTZA jaia
Elkartasun jaia Belatxikieta elkartearen Zanpantzarren erakusketa, 12:00etan. Txupinazoa eta poteoa Luis Urrengoetxeatik.

12:30ean. Txalapartariak, albokalariak, trikitalariak..., 14:00etan. Bertso bazkaria, 15:00etan. Ostean, herri kirol herrikoiak, Kittu taldea, sagardoa eta txorizoa, 17:30ean

DURANGO maratokia
Elkartasunezko zumba maratokia, 10:30-12:30, Landako kiroldegian. Izen-ematea, 3 euro/orduko.



BERRIZ ipuinak
'Ezberdin bezain eder' ipuin kontaketa Nerea Arizmendarretaren eta Mariano Hurtadoren eskutik, 12:15ean, Kultur Etxean.

ELORRIO ikuskizuna
'Magic spectacular' Sun magoagaz, 18:00etan, Arriolan.

ABADIÑO emanaldia
'Comprar, tirar y comprar' pelikularen emanaldia. Ostean kontsumismoari buruzko eztabaida, 17:00etan, gaztetxean.

ZALDIBAR emanaldia
Ikerren eta Ainhoaren kontzertu akustikoa, arratsaldean, gaztelekuan.

DURANGO kontzertua
'Atlantique' Gorgui Ndaiyeren ikuskizuna, 23:30ean, Plateruenean.

Abenduaren 24an

ELORRIO azoka
Azoka herrikoia: 'saldu, erosi, oparitu, trukatu', goizean zehar, plazan.

ELORRIO emanaldia
Besaide dantza taldea, 18:00etan, plazan.

DURANGO kontzertua
Gabon kontzertua, Txistua, pianoa, biolina, haria, metalak eta abeslariak, 13:00etan, San Frantzisko elizan.

Abenduaren 26an

DURANGO ikuskizuna
Pirritx, Porrotx eta Marimotots, 16:00etan eta 18:30ean, Landako Gunean.

ZALDIBAR ekimena
gaupasa, gaztelekuan.

Abenduaren 27an

DURANGO emanaldia
'Mensajes de frontera' dokumentalaren emanaldia; ostean, hitzaldia Iñaki Larrañagagaz eta Eneko Belmontegaz, 19:00etan, Plateruenean.

ZALDIBAR emanaldia
Film emanaldia, arratsaldean, gaztelekuan.



Willis Drummond

KONTZERTUA
ELORRIO :: Abenduak 30

Willis Drummond musika taldeak denboraldi baterako azken kontzertu sorta iragarri du. Emanaldi horietako bat Elorrioko gaztetxean izango da. Sermond's taldea izango dute lagun oholtza gainean.

ANBOTOkoko agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

KONTU KANTARI 2 Zornotza aretoan ikusgai

ANTZERKIA • Txotxongiloak dira bidaia honetako protagonista. Besteak beste, reggae, rap edo blues erritmoan egingo dute dantza. Familia osoagaz batera, musika eta txotxongiloak lagun, mundu magiko batez gozatzeko aukera ona. La Resistens taldearen obra da. Abenduaren 28an egongo da ikusgai, 18:30ean, Zornotza aretoan.



Zenbait kirol jarduera egongo dira herrietan

KIROLA | Gabonetan guztia ez da jana eta edana. Egun hauean egon daitezkeen gehiegikeriak orekatzeko, kirola egiteko eskaintza ere badago zenbait herritan. Esaterako, mendi irteerak oso ohikoak dira urte zaharra agurtzeko edo berriari ongi etorria emateko. Bestalde, tradizio bilakatu diren San Silvestre lasterketak ere gero eta herri gehiagotan egiten ari dira. Lasterketa herriko hauek gero eta jendetsuagoak dira, eta azken urteetan ohiko irudi bilakatu da herrietako kaleetan jendea mozorrotuta lasterka ikustea. Ume, gazte, nagusi zein familia osoek parte hartzen dute bertan. Gabonetan, denboraldiko atsedena dijak baliatuta, zenbait kirolerlan lagun artekoak jokatzeko ere ohi-koa izaten da.

San Silvestre lasterketak

Abadiñon, abenduaren 30ean, 12:00etan.

Durango abenduaren 31n, 17:00etan.

Zaldibarren abenduaren 31n, 17:00etan.

Zornotzan abenduaren 31n, 16:30ean.

Mendi irteerak

Elorri, abenduaren 31n eta urtarrilaren 1ean, Erdellara. 09:00etan.

Garain, abenduaren 31n, 11:00etan.

Abadiñon, abenduaren 30ean, 12:00etan.

Abenduaren 28an

ABADIÑO emanaldia
Gaztetxeko bideoen proiektzioak, eta pintxopotea arratsaldean, gaztetxean.

DURANGO emanaldia
'Gernikaren egiak'.
Ostean, Haritz Petralanda eta Ibon Meñika egileekin solasaldia, 18:30ean Sorginola gaztetxean.

ZORNOTZA antzerkia
'Kontu-kantari 2', La Resistens taldearen obra, 18:30ean, Zornotza Aretoan.

ELORRIO txapelketa
'II.futbolin txapelketa', gaztetxean.

Abenduaren 29an

ELORRIO emanaldia
'Black Mirror', 22:00etan, gaztetxean.

Abenduaren 30ean

ELORRIO kontzertua
Sermonds eta Willis Drumond, 23:00etan, gaztetxean.

ZALDIBAR irteera
Durangoko izotz-pistara irteera, goizetik.

ZORNOTZA kontzertuak
Stronger Together, Klown, Rise Up eta Bonus Track taldeen kontzertua, 17:00etan, Ziztada Gunean.

MAÑARIA kontzertuak
Storm, 22:30ean, U2 Taskan.

Abenduko agenda



22	<p>"OLENTZERORI GUTUNAK" Maiztegi Herri eskola - Ibarretxe Kultur Etxea Eskolako umeek beraien gutunak ekarriko dituzte Ibarretxe Kultur Etxera</p> <p>"UMEENTZAKO IKUSKIZUNAK" Maiztegi Herri eskola - Ibarretxe Kultur Etxea 10:00 (2 - 3 urte) Txotxongiloak "Beti lagun" 10:15 (4 - 5 urte eta 1. maila), Pailazoak: "Korri eta Xalto". 10:00 (2./ 3./ 4. mailak). Pailazoak: "Korri eta Xalto".</p> <p>"HERRI BIBLIOTEKA" Helduentzako ipuin-kontalaria 19:00 Boni Ofofo "El elefante que perdió su ojo"</p>
23	<p>"ABENDUKO KOPLAK" Abenduko lagunak Aita San Migel plaza 10:00 "Abenduko koplak" Etxez-etxe</p>
24	<p>"OLENTZERO ETA MARI DOMINGIRI HARRERA" Askondo 11:30 Olentzero eta Mari Domingiri itxaroten Aita San Migel, ondoren kalejira Askondoraino trikitilariekin 12:30 Olentzero eta Mari Domingiri harrera, Elkartasun azokaren otzararen zozketa eta gutun-postal eta erakusleihen lehiaketaren sari ematea. Bukatzean, ume guztiak batera direla, familia argazkia aterako da. ZATOZ BASERRITAR JANTZITA!</p>
27 28 29	<p>"UMEENTZAKO GABONETAKO PARKEA" Iurretako Udala - Kimuak Aisialdi Taldea / Olaburu frontoia 11:30 - 13:30 / 17:00 - 20:00 Ludoteka, puzgarriak, jolasak eta tailerrak</p>



Gernikako Egiak dokumentalaren emanaldia, eta ostean solasaldia, Sorginolan. Abenduaren 28an.

Abenduaren 22tik 23ra

ZALDIBAR azoka
'Hartu eta eman' truke azoka, gaztelekuan.

Abenduaren 14tik 22ra

MALLABIA erakusketa
'Fernando Alonso'.
Astegunetan, 19:00-20:15. Zapata eta domeketan, 11:30-13:30, Kontzejuzarren.

Urtarrilaren 2tik 5era

DURANGO tailerra
'Ahduntze feministarako rap tailerrak La Furiagaz'.
10:00-14:00etan Andragunean.

DURANGALDEA deialdia
'Enpresa ideien deialdia' Gaztedi Durangaldearen eskutik.
Informazio gehiago: www.gaztedidurangaldea.eus.

Zine- ma

:: Berriz KULTUR ETXEA

• **El autor**
barikua 22: 22:00
zapata 23: 19:00

:: Durango ZUGAZA

• **Jumanji**
barikua 22: 19:30/22:00
zapata 23: 16:30/19:30/22:30
domeka 24:
astelehena 25: 19:00
martitzena 26: 17:00/20:00
eguzkena 27: 17:30/20:00

• **Ferdinand**
barikua 22: 19:00
zapata 23: 16:30/17:00
domeka 24:
astelehena 25: 19:00
martitzena 26: 17:30
eguzkena 27: 17:30

• **Una vida a lo grande**
barikua 22: 19:30/22:00
zapata 23: 19:30/22:30
domeka 24:
astelehena 25: 19:00/21:30
martitzena 26: 17:30/20:00
eguzkena 27: 17:30/20:00
• **Star Wars: El último jedi (3D)**
barikua 22: 21:15
zapata 23: 19:00/22:00
domeka 24:
astelehena 25: 20:45
martitzena 26: 19:30

:: Elorrio ARRIOLA

• **La librería**
zapata 23: 22:00

:: Zornotza ARETOA

• **Jumanji**
zapata 23: 17:00/19:30/22:00
astelehena 25: 20:00
martitzena 26: 18:00
eguzkena 27: 18:00

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Bi hamarkada daramate elkarregaz errepidean lokin, Iñaki eta Ekain Elortza anaiek, Julen Oarbeaskoagaz batera, Seiurte taldeagaz. Urteurren ospakizuna borobiltzeko, kontzertua eskainiko dute gaur etxean, Berrizko Hiltegixe gaztetxean. Iokin Elortza gitarrista eta abeslariagaz batu da ANBOTO.

Zer moduz joan da urteurrena?

Inoiz ez gara izan gauza handiak antolatzeakoak edo horrelako gauzei garrantzia ematekoak, baina hogeitun urte ez dira egunero betetzen, eta agian horregatik, zerbait berezia egitea pentsatu genuen. Gauza gutxi batzuk, baina bereziak. 'Hogei urte' abestian oinarrituta guztiak.

Luzea egindako bidea abesten duzue bertan. Luzea egin zaizu ibilbidea? Nola lortzen da hogeitun urte elkarregaz ematea? Eta nondik ateratzen duzue aurrera egiteko grina?

Gure kasuan, harreman sendoa edukita; harreman pertsonal oso ona ez badago, ezinezkoa da. Garrantzitsua da, baita ere, bakoitza gustura egotea taldean duen lekua, duen pisuagaz. Askotan tirabirak egoten dira musika taldeetan, eta guk ez dugu horrelakorik eduki.

Grina, oster, musikarekiko maitasunetik dator. Ezinezkoa litzateke, bestela, ibiltzen garen bezala ibiltzea, gaueko ordu txikietan entseatzeko, kilometro pilo egin ostean lau katuren aurrean kontzertuak eskaintzen... sekulako afizioa behar duzu, bestela ezin zaiolako eutsi.

Gaur berriro elkar izango gara bakarrik rockaren uhartean. Bakarrik sentitu zarete?

Abestia gure ibilbideari buruzko metafora bat da. Gu beti sentitu gara bakarrik, bai musikalki eta baita publiko aldetik ere. Ez diogu negatiboki, ez da kexa bat, baina horrela da. Talde batzuek arrakasta gehiago dute, eta beste batzuek gutxiago; hau da gurea eta konforme gaude.

Ulertu daiteke ez direla rockaren garai onenak ere?

Gazteak ez doaz rock kontzertuak ikustera, pisua galdu du beraien artean. Beherakada nabarmena egon

“**Hogei urte irauteko, taldekideen artean harreman sendoa eta musikarekiko maitasuna behar dira**”

da kontzertuetan. Badaude talde gutxi batzuk jende asko mugitzen dutenak, baina talde askok oso jende gutxi mugitzen dugu. Duela hogeitun urte ez zen horrela, publikoa zabalagoa eta anitzagoa zen, eta kontzertuak jendetsuagoak ziren. Garaiak aldatzen dira, eta horrek ez du zertan negatiboa izan. Ni po-

“Inoiz ez dugu inon lekurik aurkitu; rockzaleentzat poperoegiak izan gara, eta popzaleentzat rockeroegiak”

Durungaldeko talde beteranoetako bat da Seiurte laukote berriztarra; hogeigarren urteurren ospakizuna ixteko, kontzertu berezia eskainiko dute gaur Berrizko Hiltegixen; lan berria izango denaren abestiak prestatzeari ekingo diote ostean



Iokin Elortza Sarasketa
Seiurteko gitarrista eta abeslaria

Berriz | 1974

zik nago kontzertu batera joan eta zahar ez sentitzeagaz, hori abantaila bat da (barrez).

Izan zarete nekean hauspoa, zuentzat, gure eskerrik onenak.

Noski nekea sumatu dugula, derri gorra da hogeitun urtean. Kopuruz, jarraitzaile gutxi eduki dugu, baina oso fidela izan dena; beti animatu gaituzte, eta hori eskertu egin behar da. Gure familietan ere, gure afizioa sufritzen dute, denbora asko kentzen digulako, eta beraie ere eskertu behar diegu.

Durungaldean bakarrenetakoak zarete horren ibilbide luzeagaz, are gehiago pop-rock doinuak jorratzen dituztenen artean.

Guk ez dugu inoiz eszena propiorik eduki, beti izan gara talde bakarra. Askotan, kontzertua nogaz jo ere ez dugu jakin. Inoiz ez dugu inon lekurik aurkitu, baina ez dugu bilatu ere. Rockzaleentzat poperoegiak gara, eta popzaleentzat rockeroegiak. Baloratzea da Alerta durangarren kasua, adibidez, hainbeste

urtez lanean, borrokan. Hainbeste urteren ostean jarraitzen duten taldeak, eta batez ere arrakasta gehiegirik ez dutenak, horiek dira idolorik handienak.

Ezpala [Estoldetan, 2015] diskoaren jarraipena kaleratzeko asmorik?

Hasi gara lanean, baina inolako datarik barik, gure ustez onak diren zortzi edo hamar abesti edukitzekoan kaleratuko dugu diskoa. Kontzertu batzuk ere eskainiko ditugu 2018an zehar.

Hogeigarren urteurrena borobiltzeko, festa berezia Berrizko Hiltegixe gaztetxean

Gaurkoa zerbait berezia izatea gura dute Seiurteko kideek. Kontzertu bat baino gehiago, festa bat. “Etxekoekin ospatzea gura genuen, lagunekin, familiakoeekin, herrikoekin”. Berriztarrez gain, Kokein eibartarrak ere ari tuko dira taula gaineran. “Garai-kideak dira, eta estilo aldetik ere konexioa eduki dugu beti”. Festa

“**Urteetan jarraitzen dutenak, batez ere arrakasta gutxiokoak, horiek dira idolorik handienak**”

Hogei urtean anekdota ugari, ezta? Aipatzeko modukoren bat?

Gaztea maketa lehiaketa irabazi ostean, Supergrass taldeagaz jo genuen kontzertua, Bilboko Kafe Antzokian. Horrek oihartzuna eman zigun, eta diskoa kaleratzeko aukera hori da, zalantzarik barik, momenturik inportanteena. Baina bai, mila momentu bizi izan ditugu. Nahiko ibilbide konstantea eduki dugu, eta duina. Jende ugari ezagutzeko aukera ere eman du taldeak.



ixteko, Dj Wahak musika jarriko du. Urteurrenaren ardatza *Hogei urte* abestia izan da. Honen grabazioa ere lagunarteko kontua izan zen. “Morgan taldekoak aspaldiko lagunak dira, musikalki pilo gustatzen zaizkigu, eta argi geneukan beraiekin egin behar genuela grabaketa”, azaldu du Elortzak. Abestiaz gainera, beste-

lako ekimenak ere egin dituzte urteurrena ospatzeko. Horrela, Kontzertu sorta berezia eskaini dute hileotan berriztarrek. Hileotan, Madrilen eta Galizian egon dira, adibidez, eta udan Mundaka Festival jaialdian jotzeko aukera izan zuten. “Berezia izan zen, ez gaudelako ohituta horrelako jaialdian jotzera”.

Hainbat diziplinatako artistek bat egingo dute Malutan, zirku tradizionala eta berria fusionatzeko

Hirugarrenez egingo dute Maluta jaialdia Durangoko San Agustinen. Abenduaren 28, 29 eta 30ean egingo dituzte emanaldiak, eta bertan Euskal Herriko eta nazioarteko hainbat artistak berriaz prestatuak ikuskizunaz gozatu ahalko da



Garazi Pascual kable gainean oreka mantentzen.



Maple Staplegun australiarra hula hoopagaz da artista.

ZIRKUA • ARITZ MALDONADO

Karpatik atera, eta antzokira bidaiatuko du zirkuak Maluta ikuskizunagaz. Hirugarrenez eskainiko dute emanaldi berezi hau San Agustin kultur gunean.

Ganso&Ciaren eskutik, abenduaren 28, 29 eta 30ean zirku bilakatuko da San Agustin aretoa. Zenbait tokitatik etorritako artisten konbinazioak ikuskizun bakarra osatu ohi duela azpimarratu du Gorka Ganso Ganso&Ciako kide eta zeremoniako maisuak, eta horrek egiten du berezi Maluta. “Artista talde hau egun hauetarako baino ez da batzen, eta beraz, ikuskizuna egun hauetan, hemen, baino ezingo da ikusi”, adie-

razi du Gansok. Ikuskizun parte-hartzailea izateak are bereziago egiten du hitzordua, gainera. “Inprobisaketaren askatasuna eta ikusleen partaidetzaren arabera, luzatu edo murriztu egin daiteke ikuskizuna”, gaineratu du. Emanaldiak ordu eta erdi ingurukoak izango dira.

Zirkuaren bi korrante nagusien arteko oreka lortzen saiatzen dira antolatzaileak, hau da, zirku tradizionalaren eta zirku berriaren arteko nahasketa dira saioak. Hirugarren Maluta honetan, sei artistek parte hartuko dute, Ganso&Ciaz gainera. Maple Staplegun australiarra Hula Hoopagaz egiteko gai dena eraku-

tsiko du; Herrialde Katalanetatik datoz Diegolow! eta Amer i Africa, eta Aragoitik, oster, Dani Ball. Lehenbizikoa diaboloen maisua da; Amer eta Africa, oster, akrobatak dira. Garazi Pascual eta Mi-

Askotariko artistak egongo dira; Dani Ballek, adibidez, fitness baloi baten gainean egiten ditu akrobaziak

kel Ayala euskal herritarrek ere hartuko dute parte; Pascual kable gainean oreka mantentzen artista da; Ayalak, oster, malabareekin garatu du trebezia. Artista guztien

artean, Dani Ballen parte-hartzea nabarmendu du Gansok. “Gutxitan ikusten diren artistak ekartzen saiatzen gara, hainbat diziplina nahasteaz gainera; aurten, azpimarratzekoa da Dani Ballen ikuskizuna: fitness baloi baten gainean egiten ditu akrobaziak.

Haur zein helduentzat

Garaiko zirkuaren zaleez gainera, malabareak eta akrobaziak gustuko dituztenek ere gozatu dute emanaldi hauekin. “Helduentzat ere oso gomendagarria da, haurrik gabe etorrita ere”, dio Gansok. Bide batez, sarrerak aurrez erosteko deia egin du, “kalean ez geratzeko”.

Artestura Feministak lehiaketako lanak ikusgai Andragunean, urtarril erdira arte

ERAKUSKETA • A.M.

Artestura Feministak lehiaketako hamabost lan nabarmenenak ikusgai daude Andragunean; tartean, saritu dituzten hiru durangarren lanak. Amaia Asategi Iturralde (*Oreketxe*), Aurore Perez Fournier (*Stan Legea*) eta Rosa Etxabe Barruetabeña (*Kontzientzia Saretua*) dira artista sarituak. Zazpi sarituez gainera, erakusketa beste zortzi lanek osatzen dute; lan horiek epaimahaiaren aipamen berezia jaso dute, eta tartean dago Goiuri Aldekoa-Otalora Txintxurrenaren *Haziak* lana. Erakusketa Andragunean egongo da, urtarilaren erdialdera arte.

Erakusketa ibiltariaren lehenbiziko geltokia da Durangoko Andragunea. Ostean, hainbat herritatik igaroko da; tartean, Eibar, Basauri, Arrasate

Amaia Asategi, Aurore Perez, Rosa Etxabe eta Goiuri Aldekoa-Otalora durangarren lanak egongo dira ikusgai

eta Ondarroatik. Ekimenaren helburua emakumeen sormena eta produkzio artistiko feministak bultzatzea da. 2016an sortutako Emakumeen Etxea Sarea proiektuak antolatu du lehiaketa, eta, guztira, 61 lan aurkeztu dituzte Euskal Herriko Emakumeen Etxe ezberdinetan. Epaimahaia hiru berdintasun teknikariek, bi arte adituek eta mugimendu feministako bi kidek osatu dute.

Txapelketari agur esan dio Elortzak, BECeko finalean bosgarren amaituta

BECen bildutako 14.600 bertsozaleren aurrean kantatu zuen Elortzak ez duela txapelketan berriro abestuko



Igor Elortza, BECeko finaleko une batean.

BERTSOLARITZA • M.O. / A.M.

Azken agurra baliatuz, Euskal Herriko Txapelketa Nagusian gehiago ez duela kantatuko iragarri zuen Igor Elortzak joan den asteko BECeko finalean. Buruz burukorra sartzea amesten bazuen ere, bosgarren postuagaz konformatu behar izan zuen durangarrak. 1.124 puntu lortu zituen saioan. Txapela, oster, Maialen Lujanbio hernaniarrak eraman zuen. Domekako finaletik, txapelketetan bizitako irudi garrantzitsuenetako bat darma bertsolari durangarrak. “Orainxe bertan BECeko jendetza daukat gogoan, azken agurraren ostean txaloka, zutik. Saioari buruz, ofizioetan eta azken bakarkakoan saio onak egin nituela uste dut, eta horrela jaso dut zaleengandik ere,

eta handia da hori BECen”, adierazi du. Honela, zazpi parte-hartzeren ondoren (lau finaletan egon ostean, eta horietako batean, 2013koan, hirugarren amaituta), txapelketa batean gehiago ez abestea erabaki du Elortzak. “Ez da edozer agurtu dudana, nire bizitzaren zati inportante bati esan diot agur”, esan du.

Finalagaz, eta aurtengo txapelketagaz, oro har, sentsazio gazi-gozoa darma durangarrak, baina. “Txapelketarako eginiko lanaren fruituak etorriko dira, plazan bertotan edo bestelako sorkuntza lan batzuetan”. Halere, penaz geratzen da Elortza saioa bi kontugaz, eta horiek azpimarratu gura izan ditu. “Uste nuenaren kontra, lehiarako grina eskasagaz bizi izana txapelketa, eta finalera lorik apenas eginda

joan eta egun osoan neure buruari tiraka eta bultzaka jardun behar izana”, azaldu du bertsolariak. Perspektibagaz begiratuta, “pozik eta lasai” dago Elortza; halere, oraindik denbora behar du bizitakoaren “ganorazko” irakurketa bat egiteko.

Eta berri bat

Urte berria zaharra amaitu bezala hasiko du Elortzak, bertsoetan. Tartean, Durangon kantatuko du, abenduaren 30ean. “Saioz beteta dauzkat aste hauek. Gero atsedean hartuko dut”. Txapelketei agur esan arren, bertsoari lotuta jarraituko du durangarrak. “Ilusio, motibazio eta zeregin berriak topatu beharko ditut bertso munduan, baina aurretik ere ekin izan diogu ohiko plazaz bestelako proiektuei”.

Elorrioko musikazaleak batu egin dira ekimen berri baten bidez Ateneori bizitza emateko helburuagaz

Eskualdeko eta inguruetako proposamen interesgarriekin agenda "kriterioduna" prestatu dute datozen asteetarako.



Zarautzik dator Sofa hirukotea.

MUSIKA • A.M.

Elorrioko Ateneo aretoari bultzada bat emateko asmoz lagun talde bat biltzen hasi zen orain dela denbora bat. Musikarekiko afizioak

lotzen zituen guztiak, eta pasio horretatik ekimen berri bat jaio zen: AteneON. Egun, 20 pertsonak baino gehiagok osatzen dute talde hori. Iaz, Elorrioko taldeekin osatu

zen programazioa, eta edukitako arrakasta ikusita, aurrean anbizio gehiago edukitzea erabaki dute. "Iaz oso giro ona lortu zen, aurrean Durangaldeko taldeetara zabaldu

dugu, eta baita inguruan ikusi ditugun beste proposamen interesgarri batzuetara ere", azaldu du Gorka Molerok.

Gaur, abenduak 22, Borrokan eta Sofa taldeek eskainiko dute kontzertua, eta datozen asteetan Nebrashka, Mocker's, Kilauea, Seiurte, Vulk, Anita Parker eta Cecilia Payne talde eta artistak igaroko dira Ateneoko taulatik. Sarrerak bost euroan salduko dituzte.

Borrokan (Bera) eta Sofa (Zarautz) taldeek estreinatuko dute AteneOn ekimenaren denboraldi berria

Inauteriak, aitzakia

Animal Fest lelopean, festa berezia antolatu dute ekimeneko kideek otsailaren 10erako. Mozorrotuta joateko deia egin dute, gainera. "Inauterietako zapatua musika ardatz izango duen jai parte-hartzaile bat antolatzeko aitzakia ederra izan daitekeela ikusi dugu".

Geure Durangaldea

Garazi Mugarza Markina Erizaina



Beste aukera bat

Halakoa zara zu ere, arrastaka eta erdi trabes iristen zara abendura eta, ziur egon gabe, aho batez esaten duzu urte eder bat agurtuko duzula hobeari ekiteko. Zerorrek ere epeak jartzen dizkiozu zeure buruari, pazientzia dohaintzan eman, borondaterik ez eta denbora behartu nahi duzulako.

Baina balantzea egiten duzu: azazkalak edo tabakoa lako bizio eta ezinegonik gaintu duzun; zergatik ez zenuen dei hura egin; zorrak kitatu dituzun; jakin al duzun entzuten, haien minak arintzen; zenbat gastatu duzun behar ez dituzun gauzetan; barkatze-ko kapaz izan ote zaren; maiz eutsi ote diozun negarrari; jasaten duzun zugan eta zeurekiko egotea; kanpoan behar lukeenari aterik ireki diozun; hitzeman zizutena bete duten eta akordatzen ote zaren zu zure promesez; zenbat gezur esan dituzun (zenbat egia ezkutatu); zer ukatu duzun, zer galdu, zer onartu, zer bota, zer aitortu; izan ote duzun huts egiteko ausardiarik, amore emateko gogorik; inoren memorian arrastorik laga duzun, zenbat orbain zail dituen zeureak; damutzen ote zaren egin gabekoaz, eta eginaz; zeure baitako iraultzarik hasi duzun eta zenbat negozioren konplize makur zaren oraindik; eranzteak lotsatzen zaituen; baduzun iheserako grinik; nora ez zenukeen itzuli nahi, eta beste.

Eta bat-batean ohartzen zara zure bizio eta ertz ilunenak ez dituzula aldatu, eta aldiz, ahaztu egin dituzula hor, zurekin, behar dituzun zerak. Bukatzeaz dela epea. Horregatik irensten dituzu urtero mahatsak, funtsean zeure buruari beste aukera bat emateko.

Eskualdeko bost sortzailek ideiak elkarbanatu dituzte Pechakucha saioan

2018an saio gehiago antolatzeko asmoa du Gerediagak, beste sortzaile batzuekin.

SORMENA • A.M.

Pechakuchak berriketa esan gura du japonieraz. Horrez gainera, norbere ideiak modu bizkor batean gainontzekoei aurkezteko modu original bat ere bada; izan ere, hogei irudigaz egin behar da aurkezpena, 20 segundoro irudi bat erakutsiz. Munduan zehar ezaguna den proiektua gurera ekarri du Gerediaga elkarteak, lehenbizikoz. Horrela, Durangaldeko bost sortzaileen proiektuak ezagutzeko aukera egon zen joan den eguaztenean.



Lehenbiziko Pechakuchan parte hartu zuten sortzaileak.

Saioaren helburua, ideiak elkarbanatzeaz gainera, zenbait proiektu erakustea eta hauei buruzko solasaldia sustatzea da. Lehenbiziko saiorako, Durangaldeko bost gazteren proiektuak aukeratu zituzten: Joseba Attard elorriarrak *Olabe* proiektua aurkeztu zuen. Eñaut Aiartzaguena iurretarrak, berriz, *@irribarrez* sinadurapean egiten ari den ibilbidea erakutsi zuen. Julen Fernandezek, osterara, *Bizikletarte* eta *Eztreetipokoak* proiektuen berri eman zuen. Elene Carreto dantzariak, berriz, bere ibilbidea azaldu zuen, eta Iratxe Mediavilla *Argi* filmeko zuzendariak aurrekontu baxuagaz pelikula bat grabatzeko aholkuak eman zituen. 2018an saio gehiago antolatzeko asmoa du Gerediaga elkarteak.

MALUTA III

Durango - Basauriko eguberri zirkua

Abenduak 28, 29, 30
18:00etan

Garazi Pascual
Orekak-kablea - Euskadi

Amer i África Circ Cia
Akrobazia duoa - Bartzelona

Mikel Ayala
Malabareak - Euskadi

Diegolow
Diaboloak - Bartzelona

Amelia Cadwallader
Hula hoop - Australia

Daniel Esteban
Fitness pilota - Zaragoza

San Agustin KULTUR GUNEA
DURANGORO UDALA

Sanagustinalde, 12 · Tel.: 946 030 021 · sanagustin@durango.eus

www.plateruena.eus

PLATERUENA

Abenduak 23 - 23:30ean

ATLANTIQUE GORGUI NDIAYE
Kontzertua

Abenduak 30 - 22:00etan

URTEKO AZKEN BERTSO SAIOA
Bertso saioa

Urtarrilak 7 - 13:00etan

ENERITZ FURYAK
Aperitifa session

PLATERUENA Kafe Antzokia
Landako Hiribidea, 4A
DURANGO
Tel.: 946 030 300
jateitxea@plateruena.net



Anbotoren lagunak

Hile honetan EROSKI BIDAIAKek emandako 2 PERTSONENTZAKO EGONALDI BAT zozkatuko dugu Anbotoren Lagunen artean.
Zorte on!



AURREKO ASTEKO ZOZKETAREN IRABAZLEA
Unamunzaga-Etxebarria hartz kiilinkak emandako hartz eskuila elektrikoa

EGOITZ FERNANDEZ DE ARROYABE
ZORIONAK!

CARREFOUREko
100€-ko BONU TXARTELA
zozkatuko dugu
Anbotoren lagunen artean
ZORTE ON!



afede

Gure Jostailu Denda

Anbotoren lagunen artean
AFEDEko
130 euroko
5 OPARI BONU
zozketaren
irabazleak

- Amaia Basauri Miota
- Jone Berriozabal Bernas
- Eli Aranburu Garitagoitia
- Itxaso Mancisidor Lopez
- Maria Pilar Arrinda Bilbao

Anbotoren lagunak

Lekuan lekuko lagunak

Anboto Komunikabideak @anboto @anbotokomunikabideak

www.anboto.org · lagunak@anboto.org · 946 816 558

ANBOTO - Bixente Kapanaga, 9 - 48215 IURRETA, helbidera bidali

Izena

Abizenak

Helbidea

Herria NAN zenbakia

E-posta Telefonoa

Kontu korrontea

“Oierrek berea ematen badu eta nik erregalu gutxi egiten baditut, hor egon daiteke gakoa”

Euskaragaz eta euskaldunekin lotura duen pilotaria da Zabala errioxarra; Olazar pilota txapelketako finala jokatuko du

PILOTA • JOSEBA DERTEANO

Abizenak aditzera ematen duen moduan euskaldun sustraiak ditu Javier Zabalak (Angiano, Errioxa, 1997). Birraitona Abadiñoako Mendiola auzokoa zen. Handik nahiko gertu final garrantzitsua jokatuko du abenduaren 31n: Zaldibarko Olazar pilota txapelketakoa. Oier Etxebarria igorretarrak eta biek torneoko partidurik harrigarrienean lortu zuten finalerako txartela. 9-20 galtzen zihozzen eta buelta ematea lortu zuten.

Aldapa gora dituzten partiduak aurrera ateratzen espezialistak bihurtu dira. Profesionaltarako bidean dauden afizionatuek jokatzen duten enpresen arteko txapelketako finalean dute aurrekaria; 12-20 eta 16-21 galtzen ibili ostean, irabaztea lortu zuten. “Horregatik, Zaldibarren hamargarren tantoa egin genuenean elkarri begiratu eta egoerari buelta emango geniola konbentzitu ginen. Behin lortu bagenuen, zergatik ez bigarrenez?”, adierazi du aurrelari errioxarrak. Esan eta egin. Etxebarria egurrean hasi zen. Zabalak, egunik inspiratuena ez zuela jakitun, joko praktikoa egitea erabaki zuen: txukun defendatu eta aukera zuenean, atzera pilota. Bazetozela, bazetozela, eta Sanchez eta Prieto aurkariak, batez ere bigarren hori, urduri jartzen



Aspegaz aurrekontratua du errioxarrak, eta ez du profesionaltarako saltoa emateko presarik. “Ondo prestatu nahi dut”.

hasi ziren. Esaterako, Prietok sake laburregia atera zuen 16-21ekoan.

Finalean Alberdi eta Aranguren gipuzkoarrak izango dituzte aurkari. “Ondo ezagutzen ditugu eta ezer erragalatzen ez duen bikotea da”, dio Zabalak. Horregatik, “pazientzia” izango da euren estrategia. “Oierrek berea ematen badu eta nik erragalu gutxi egiten baditut, hor egon daiteke partiduko gakoa”.



Zabala partidu batean saka ateratzeko prest.

Oier Etxebarria bizkartzain izatea “gozamina” dela dio. Elkarregaz poz handiak hartu dituzte, baina elkarren kontra jokatzea ere egokitu zaie. “Bergaran final bat irabazi zidan. Ondoren, nik Lodosan beste bat irabazi nion. Elkarregaz zein elkarren kontra sarritan aritu gara”.

Euskaraz zekien errioxarra

Ikasitako gehiena ahaztuta du, baina euskaraz “dezente” jakin izan duela dio Zabalak. Ez bere birraitonak irakatsita, bera jaio orduko hil baitzen. Errioxako Bañares kanpi-

“Hamargarren tantoa egitean elkar begiratu eta egoerari buelta emango geniola konbentzitu ginen”

nean ikasi zuen. Lagun pilotariekin udako hainbat aste han ematen zituen. “Hara joaten ziren gehienak euskaldunak ziren, hainbat ezagutu nituen eta, azkeneko, euskaraz gauza dezente esaten nekien. Zoriturrez, gehiena ahaztu zait”.

Birraitonaren sorteria ezagutzeko aukera izan zuen orain hila batez. “Biharko Izarrak txapelketan aritu nintzenean Abadiñora joan nintzen herria ezagutzera, kuriositatea nuelako, eta asko gustatu zitzaidan”.

Aspegaz aurrekontratua du 20 urteko errioxarrak. Orainsu berri du akordioa. “Ez dut profesionaltan debutatzeko presarik. Nire maila ahalik eta gehien hobetu gura dut afizionatuetan”, azaldu du pilotariak.

Garitak eta Arrietak batera jokatuko dute lehenengoz Durangon, Enbilen agurrean

Zapatuan izango da, Jai Alai World Tour txapelketako finalaren aurretik; finalerdiak barikuan jokatuko dituzte

ZESTA • JOSEBA DERTEANO

Durangon Jai Alai World Tourreko finalerdiak eta finalak jokatuko dituzte gaur eta bihar. Munduko

puntistarik onenak batzeaz gainera, alderdi emotiboa ere izango du jaialdiak. Zapatuan, 18:00etan, finalaren aurretik, lagunarteko

partidu berezi bat antolatu dute. Bikote bat durangarra da: Iñaki Garcia Garitak eta Iñigo Gorostola Arrietak osatutakoa. Durangon eta elkarregaz, aurreneko jokatuko dute. Estatu Batuetatik itzuli berria da Arrieta. Baina hori ez da guztia. Aurrez aurre izango duten bikoteko zestolari bat Gotzon Enbil da. Atzelari zumaiarraren ibilbide luze eta oparoko azken partidua izango da. Zesta profesionala utziko du, besteak beste, munduko txapelketa bost bider irabazi duen atzelariak. Durangon Roke Alberdi izango du aurrelari.

Finalerdiak, gaur

